Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko ekainean

XV ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2021eko ekainean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.291 izan da, maiatzean baino 241 gehiago eta joan den urteko ekainean baino 543 gehiago. Egunean bataz bestez 58 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 8 eskaintza gehiago egunean. Hilabete honetako datuak ezin dira ulertu Covid-19ak sortutako pandemiaren bilakaera positiboa kontuan izan gabe.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2021eko ekainean 190 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 522 Gipuzkoan eta 579 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 44,9 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 40,4 Gipuzkoan eta % 14,7 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 2,1 murriztu dira eskaintzak (4 eskaintza gutxiago). Gipuzkoan eta Bizkaian aldiz, hazi egin dira eskaintzak; % 29,8 eta %27,5, 120 eta 125 eskaintza gehiago, hurrenez hurren.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 60 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 46,2ko hazkundea, Gipuzkoan % 91,2 hazi dira (249 eskaintza gehiago), eta azkenik, Bizkaian % 67,8 hazi dira (234 eskaintza gehiago).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 20,4a tekniko laguntzaile profilerako erregistratu dira (263 eskaintza); eta, %19,6a zerbitzuetako profilerako (253 eskaintza). Industriako langileen, zientzia teknikarien eta kualifikatu gabeko profilen lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 252, 196 eta 134 eskaintza erregistratu dira, hurrenez-hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, lehen sektorekoak eta zuzendariak izan dira, 8 eta 5 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza gehienak hazi dira: laguntzako teknikarien profilekoak izan dira gehien hazi direnak, bai balore absolutuetan zein erlatiboetan (91 eskaintza gehiago, % 52,9ko hazkundea). Beste muturrean aurkitzen dira ez kualifikatuen profileko eskaintzak, hauek 9 eskaintza gutxiago erregistratu dituzte.

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintza guztiak hazi lehen sektorekoak izan ezik; hauek 3 eskaintzatan murriztu dira. Balore absolutuetan, laguntzako teknikarien profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (126 eskaintza gehiago, % 92ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, zuzendaritza profilekoak izan dira (% 150ko hazkundea, 3 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 11,4k kontratu mugagabea eskaini dute; % 88,4k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,2ak, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 147 izan dira, aurreko hilabetean baino 12 eskaintza gehiago. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 233 eskaintza gehiago erregistratu dira: 1.141 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 25,7koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2021eko ekainean 3 izan dira, aurreko hilean baino 4 gutxiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 58 gehiago izan dira (% 65,2ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 75,8hazi dira; 492 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, aldiz, 7 gutxiago erregistratu dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2021eko ekainean erregistratutako lan-eskaintzen 3 laurdenek (992 eskaintza, % 76,8) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 12,2k (158 eskaintza) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 2,4ko pisua dute (31 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,2koa da (3 eskaintza).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak hazi dira, urte 1 eta 3 arteko esperientzia eskatzen dutenak salbu; hauen kasuan, 6 eskaintza gutxiago erregistratu dira (%5,3ko murrizketa). Gehien hazi direnak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, 0 eta 6 hilabete arteko denbora eskatzen duten eskaintzak izan dira (236 eskaintza gehiago, % 31,2ko hazkundea).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak hazi dira. Kasu honetan ere, 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira hazkunde handiena izan dutenak bai balio absolutuetan zein erlatiboetan (449 eskaintza gehiago, % 87,2ko hazkundea).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 15,6k zehazten du datu hori (1.291 eskaintzetatik 202). 202 eskaintza horietatik, 171 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 31k, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 66 gehiago izan dira apirilarekin alderatuz, hau da, % 69,2 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 3 gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 8,8koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 88 gehiago izan dira (% 106ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, 9 eskaintzakoa izan da hazkundea (% 40,9ko hazkundea).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 8 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino eskaintza 1 gutxiago, eta 2020ko ekainean baino 6 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 86,3k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.291 eskaintzetatik 177k soilik zehaztu dute.



177 eskaintza horietatik, 80k LHko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, oinarrizko ikasketak eta unibertsitateko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 48 eta 41 eskaintza erregistratu dira, hurrenez hurren. Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (8 eskaintza).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, honako hau izan da bilakaera: gehien hazi diren eskaintzak bai balio absolutu zein erlatiboetan, oinarrizko ikasketak eskatzen dituzten izan dira (7 eskaintza gehiago, % 17,1eko hazkundea). LHko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak ere hazi egin dira (% 3,9); Unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak berdin geratu dira, eta azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak 2tan murriztu dira (-%20a).

2020ko ekainarekin alderatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira batxilergokoak izan ezik, hauen kasuan eskaintza 1 gutxiago erregistratu da (-%1,1). Oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien hazi direnak bai balore absolutu zein erlatiboetan (25 eskaintza gehiago, % 108,7ko hazkundea).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena industria izan da; honen pisua eskaintza guztien % 19,3koa izan da (249 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk, merkataritza eta eraikuntza izan dira, eskaintzen % 14,9 eta % 10,1eko pisuarekin (193 eta 131 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz eskaintza gehienak hazi dira. Balio absolutuetan gehien hazi direnak industriako eskaintzak izan dira (137 eskaintza gehiago, % 81,4ko hazkundea); aldiz, balio erlatiboetan, bilakaera onena eduki dutenak informazio eta komunikazioko eskaintzak izan dira (%119,1eko hazkundea, 25 eskaintza gehiago). Bilakaera okerrena eduki dutenak administrazio jarduerakoak izan dira (18 eskaintza gutxiago, %17ko beherakada).

Urte arteko saldoari erreparatuz, ia eskaintza guztiak hazi dira ere; salbuespenak nekazaritza (6 eskaintza gutxiago), finantzak (-9) eta etxeetako jarduerak izan dira (4eskaintza gutxiago). Bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, balore absolutuetan, industriakoak izan dira (137 eskaintza gehiago, % 122,2ko hazkundea). Balio erlatiboari erreparatuz, aldiz, informazio eta komunikazioko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (% 253,9ko hazkundea, 33 eskaintza gehiago).